

# Hernaniko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

2019ko iraila





# Aurkibidea

1. Sarrera .....	3
2. Araudi-markoa.....	4
3. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana.....	6



# 1. Sarrera

Hernaniko Udaleko Berdintasun Arloak urteak daramatza emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko ekimenak garatzen. Ekimen horien markoa orain arte Berdintasunerako II. Plana izan bada ere, behin Plan horren indarraldia bukatuta, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana** landu du Berdintasun Arloak; eta hain juxtu hori da dokumentu honetan jaso duguna.





## 2. Araudi-markoa

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak hasierako adierazpenean jasotzen duen moduan, **Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak** (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2.



artikuluak, konpromiso hau hartu zuten NBEko kideek: “printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea”.

Beste alde batetik, 1999ko maiatzaren 1ean **Amsterdamgo Ituna** indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da. Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluaekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzeko helburua.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikulua, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen du. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2. artikuluan hau adierazten da: herri-aginteez pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztupoak ezabatzeko betebeharra dute, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauzatu dadin.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak **Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea** sortarazteari buruzko 2/1988 Legea onartu zuen 1988ko otsailaren 5ean. Lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku hartzeari bultzatzea egiteko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere.

2/1988 Legea garatze aldera, Eusko Jaurlaritzak, Emakunderen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko **emakumeen eta gizonen berdintasunerako zazpi plan** onetsi ditu. Plan horietan EAEko herri-administrazioen esku-hartzearen



## 2. Araudi-markoa

oinarrizko gidalerroak jasotzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzako eremu guztietan bultzatzeari dagokionez.

Hain zuzen, EAEko Berdintasunerako Legeak legegintzaldi bakoitzean Berdintasunerako Plan bat landu eta onartzera behartzen du Eusko Jaurlaritza, gainerako herri-administrazioek eta hauen menpekoek Berdintasunerako Planak gara ditzaten Jaurlaritzak onartutako legegintzaldiko Berdintasunerako Plana erreferentziatzat hartuta.

EAEko **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak**, beraz, berdintasunaren arloan EAEko botere publikoen jarduera bideratzeko ibilbide-orrria markatzen du. Zehazki, VII. Planak 4 esku-hartze eremu ditu: batetik, Gobernu Onaren ardatza, eta, bestetik, herritarren esku-hartzerako 3 ardatz hauek: emakumeen ahalduntzea, ekonomia eta gizarte-antolaketa eraldatzea, eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

VII. Plan horretan zehaztutako programak eta helburuak hartu ditugu aintzat **Hernaniko Berdintasunerako III. Plana** diseinatzeko.

**vii** Emakumeen  
eta gizonen  
berdintasunerako  
**VII. PLANA**

LABURPENA





### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

Honako hauek dira Hernaniko **Berdintasunerako III. Planaren lan-ardatzak**:

<b>GOBERNU ONA</b>	<b>GOBERNU ONA</b> Herri-administrazioen antolakuntzan, funtzionamenduan eta jardueran genero-berdintasunaren ikuspegia txertatzea.
<b>ESKU HARTZEKO ARDATZAK</b>	<b>EMAKUMEEN AHALDUNTZEA</b> Emakumeen ahalduntzea bultzatzea maila pertsonalean zein kolektiboan, sozialean eta politikoan.
	<b>EKONOMIA ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA</b> Politika ekonomikoak eta sozialak diseinatzea, ekonomia sendoagoak eta jendarte-eredu jasangarriagoa bermatzeko.
	<b>INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA</b> Indarkeria prebenitzea, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak artatzea eta haiek izandako mina konpontzea.



# 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

Jarraian, ardatz bakoitzaren azalpena modu sakonagoan jaso dugu. Horrela, ardatzaren azalpena egiteaz gain, ardatzak lantzen dituen **programak eta helburuak** jaso ditugu.

## 1. ARDATZA: GOBERNU ONA

### AZALPENA

Herri-administrazioen antolakuntzan, funtzionamenduan eta jardueran genero-berdintasunaren ikuspegia txertatzeak gobernantza hobetzen laguntzen du. Gure eguneroko jardunean genero-ikuspegia integratzen badugu, esku-hartze publikoan emakume eta gizonen egoera, baldintza eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea lortuko dugu, batzuen eta besteen abiapuntuak kontuan hartuz. Eta horrek, Hernaniko Udalak berdintasunaren alde hartutako konpromisoa indartzeaz gain, bere esku-hartze publikoa bidezkoagoa egiten du.

*Euskal herri-aginteek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, 3.4 artikulua.*

### PROGRAMAK

### HELBURUAK

#### KONPROMISO POLITIKOA

G.O.1. Berdintasunerako plangintza garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.

G.O.2. Berdintasunerako esku-hartzea garatzeko baldintzak hobetzea.



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

<b>BERDINTASUNEKO TREBAKUNTZA</b>	G.O.3. Hernaniko Udala osatzen duten pertsonak berdintasunean trebatzea, berdintasuneko trebakuntza espezifikoa eskainiz.
<b>GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN</b>	G.O.4. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.
	G.O.5. Komunikazioan berdintasun-ikuspegia txertatzea.
	G.O.6. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzea.
	G.O.7. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.
	G.O.8. Udal-organo nahiz gainontzeko guneetan emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bermatzea.
<b>GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA SEKTORIALETAN</b>	G.O.9. Hernaniko Udalaren lanpostuen balorazio-prozesuan genero-ikuspegia txertatzea.
	G.O.10. Udaleko langileen egoeraren inguruko diagnostikoa egitea genero-ikuspegitik.
	G.O.11. Udaleko sailek bere jardueran genero-ikuspegia txertatzea.
<b>KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA</b>	G.O.12. Udal-barne mailan berdintasuneko lana partekatzea, koordinatzea eta lankidetzak eskaintzea; eta kanpo-mailan Udalez gaindiko egiturekin harremanak sustatzea.
<b>PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA</b>	G.O.13. Berdintasun Kontseiluaren bidez herriko eragile feministekin eta mugimendu feministarekin elkarlanean politika feministak diseinatzea,





### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

	segimendua egitea eta ebaluatzea.
--	-----------------------------------

#### 2. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

##### AZALPENA

Emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarrituko den jendartea eraikitzeko emakumeen ahalduntzean eragitea ezinbestekoa bilakatzen da, euren parte-hartzea bultzatuz, eta emakumeek historia, politika, ekonomia eta kulturako objektu izateari utzi eta euren bizitzetako subjektu bihurtuz.

*Elkarbizitza eraikitzeko berdintasunezkoa den eredu bat eraikitzen lagundu behar dugu, eta emakumeek espazio publikoan gizarte eta politikaren esparruetatik parte hartzea sustatu eta indartu behar dugu (...) erabakiak hartzeko espazio eta prozesuetan (...) parte hartzeko duten eskubidea bermatuz, eta mugimendu feminista eta emakumeen elkarte-mugimendua (...) indartzeko baldintzak sortuz. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2020.*

##### PROGRAMAK

##### HELBURUAK

##### EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA

E.A.1. Emakumeen genero-kontzientzia, autonomia eta autoestimua sustatzea.

##### EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA

E.A.2. Emakumeek jendartean parte hartu dezaten sustatzea, eremu eta guneguztietan.



## 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

### 3. ARDATZA: EKONOMIA ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA

#### AZALPENA

Lana sexuaren arabera banatzeak ekoizpen-arloan eta arlo publikoan maskulinoak eta gizonenak diren harreman, rol eta balioak egotea ekarri du; eta, aldiz, zaintzaren arloan eta arlo pribatuan emakumeenak gailendu dira. Zaintza-lan hauek, gainera, oso modu prekarioan egiten dira eta emakumeen bizitzak baldintzatzen dituzte.

Gizarte-eredu androzentriko eta matxista batetik berdintasunezko gizarte batera igarotzeko, beharrezkoa da sexu-hierarkia eta genero-bereizketak gainditzea, bestelako balio sozial batzuk indartzea eta botere-eredu berriak eraikitzea.

*Xede nagusia berdintasunezko gizartea lortzea da, non pertsona oro libre izango den, hala eremu publikoan nola pribatuan, bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, ohiko rolek sexuaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe.* Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. Titulua.

#### PROGRAMAK

#### HELBURUAK

**EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA ETA ZAINZTA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA**

E.G.E.1. Bizitzaren jasangarritasunerako zaintza-lanek duten balioa eta eragina aztertzea eta sozializatzea.

E.G.E.2. Zaintzaileen eta zaintza-zerbitzuetako erabiltzaileen bizi-baldintzak hobetzea.



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

<b>HEZKIDETZA, TRATU ONAK ETA SEXUALITATE ASKEA</b>	E.G.E.3. Hezkuntza formalean nahiz ez-formalean berdintasuna eta tratu onen kulturaren lantzea.
	E.G.E.4. Herritarren sexualitate askea sustatzea.
<b>HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA</b>	E.G.E.5. Herritarrak feminismoaren inguruan sentsibilizatzea eta trebatzea.
<b>OROIMEN HISTORIKOAREN BERRESKURAPENA</b>	E.G.E.6. Emakumeen nahiz bestelako gorputz ez-normatiboen ikusgaitasuna eta aitortza lantzea, arlo ezberdinetan egindako ekarpenak ikusaraziz.



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

#### 4. ARDATZA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA

##### AZALPENA

Emakumeen eta gizonen arteko botere-desorekaren adierazpen larrienetakoa da indarkeria matxista, baina indarkeria matxista ez dute emakumeek soilik jasaten. Esparru fisikoan zein sinbolikoan ematen da, eta sexu/genero/sexualitate eskema tradizionalak hausten dituzten emakume nahiz gizonek jasaten dute. Hau da, egitura biologikoaren bidez zein sexu-jokabidearen bidez eskema horri aurre egiten dioten gorputz (intersex, transgeneroa...) guztiei eragiten die. Definizio honek beraz, lesbofobia, bifobia, homofobia, transfobia... barne hartzen ditu.

*“Euskal herri-administrazioek emakumeen aurkako indarkeria-mota ezberdinen arrazoiak, ezaugarriak, arazoa identifikatzeko zailtasunak eta ondorioak iker daitezen sustatuko dute. Era berean, indarkeria horiek erazteko eta horien ondorioak konpontzeko aplikatzen diren neurrien eraginkortasuna iker dadin ere bultzatuko dute”.*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 51. artikulua.

##### PROGRAMAK

##### HELBURUAK

##### SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

I.M.1. Indarkeria matxistarik gabeko herria lortzeko herritarrak sensibilizatzea.

##### DETEKZIOA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA

I.M.2. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumei babes eta arreta osoa bermatzea eta haien ahalduntze-prozesuetan laguntzea.



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

Azkenik, taula hauetan helburu bakoitza egikaritzeko **neurriak** jaso ditugu ardezka, eta horien **epeak nahiz arduradunak** ere zehaztu ditugu.

1. GOBERNU ONA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
<b>KONPROMISO POLITIKOA</b>			
<b>G.O.1. Berdintasunerako plangintza garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.</b>	Berdintasunerako Plana Udalbatzan onartu eta abiatu.	2019	Berdintasuna
	Berdintasunerako Plana garatu, urteko lan-plangintza diseinatuz.	2019-2023	Berdintasuna
	<i>Berdinlanean</i> Batzorde Politikoa bildu urteko lan-plangintza aurkeztu, kontrastatu eta adosteko.	2019-2023	Berdintasuna
	Berdintasunerako Planari etengabeko segimendua egin, urte bukaeran memoria-txostenean jaso neurrien nahiz helburuen betetze-maila.	2019-2023	Berdintasuna
	Planaren indarraldiaren bukaeran Planaren ebaluazioa egin.	2023	Berdintasuna
<b>G.O.2. Berdintasunerako esku-hartzea garatzeko baldintzak hobetzea.</b>	Berdintasunerako esku-hartzea bideratzeko beharrezkoa den aurrekontua aurreikusi urtero.	2020-2023	Berdintasuna Alkatetza
	Berdintasunerako esku-hartzea bideratzeko beharrezkoak diren bitarteko pertsonalak egonkortu eta bitarteko materialak ezarri.	2020-2023	Berdintasuna Alkatetza
	Berdintasun Arloaren leku-aldaketak ekarriko dituen aldaketak kontuan hartuta, horietara egokitzeko Saila berrantolatu.	2020	Berdintasuna Kulturartekotasuna Alkatetza



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

1. GOBERNU ONA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
<b>BERDINTASUNeko TREBAKUNTZA</b>			
<b>G.O.3. Hernaniko Udala osatzen duten pertsonak berdintasunean trebatzea, berdintasuneko trebakuntza espezifiko eskainiz.</b>	Zeharlerrotasunaren estrategia garatu ahala, Udal-langileek berdintasunaren arloan zer-nolako trebakuntza-beharrak dituzten identifikatu, eta kasu bakoitzerako proposamenak egin.	2019-2023	Berdintasuna Gainontzeko sailak
	Genero-ikuspegia sail bakoitzaren jarduera-eremuan txertatzearekin lotutako berariazko trebakuntzak egin.	2019-2023	Berdintasuna Gainontzeko sailak
	Udal Gobernu berriko kideekin lansaio berezia egin, genero-berdintasunaren eta genero-zeharlerrotasunaren estrategiaren inguruan sentsibilizatzeko.	2019	Berdintasuna
	Berdintasunaren inguruko trebakuntza antolatu udal-teknikari eta ordezkari politikoentzat, sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia aintzat hartuta.	2020	Berdintasuna
<b>GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN</b>			
<b>G.O.4. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.</b>	Udal-inprimaki guztiak berritu sexuaren aldagaia txertatuz (eta, bide batez, hizkuntza ez-sexista eta barneratzailea erabiliz).	2019-2020	Berdintasuna Modernizazioa
	Udal-sail guztiei inprimaki berriak aurkeztu.	2020	Berdintasuna Alkatetza
	Sailen erregistroak egokitu, jasotako informazioa sexuaren arabera erregistratzeko, modu progresiboan.	2019-2021	Berdintasuna Gainontzeko sailak
	Datuak sexuaren arabera bereizi eta erregistroetan datuok jaso ahala, jasotako informazioa genero-ikuspegiarekin aztertzeko	2020-2023	Berdintasuna Gainontzeko sailak



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

1. GOBERNU ONA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
	bidea landu.		
	Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak landu eta zabaldu.	2020-2021	Berdintasuna
<b>G.O.5. Komunikazioan berdintasun-ikuspegia txertatzea.</b>	Behaketa egin landutako komunikazio-irizpideen betetze-mailari segimendua egiteko.	2022	Berdintasuna
	Azterketaren emaitzen berri eman udal-langile eta ordezkari politikoei.	2022	Berdintasuna
	Beharrezkoa ikusten bada, Udalaren komunikazio-gida barneratzeko trebakuntza-saioa antolatu.	2022	Berdintasuna
<b>G.O.6. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzea.</b>	Kontratazioetako klausula sozialak lantzeko Klausula Sozialen lantaldea bideratu eta parte hartu.	2019-2023	Berdintasuna Kontratazioa
	Kontratazioetarako berdintasuneko klausula-tipoen ereduak landu.	2019	Berdintasuna
	Kontratazioetarako berdintasuneko klausula-tipoen ereduak Klausula Sozialen (KS) lantaldean aurkeztu, kontrastatu eta adostu.	2019	Kontratazioa, Tokiko Garapena, Berdintasuna, Euskara, Ingurumena, Lan-arriskuen Prebentzioa, Zerbitzu Sozialak



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

1. GOBERNU ONA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
	Zeharlerroko gainontzeko gaien klausula-tipoen ereduak landu kontratazioetarako.	2019-2020	KS lantaldea
	Kontratazioetarako klausula-tipoen ereduak nahiz prozedura bera <i>Berdinlanean</i> Batzorde Teknikoan aurkeztu, kontrastatu eta adostu.	2020	KS lantaldea
	Kontratazioak lantzeko adostutako prozedura testatzeko proba pilotuak garatu.	2020	KS lantaldea
	Proba pilotuek eman dutena baloratu eta hurrengo urratsak zehaztu, besteak beste, jarraipen-sistema bermatzeko neurriak hartuz.	2020	KS lantaldea
	Kontratazioekin egindako lanketa bera dirulaguntzekin egiteko aukera aztertu, eta, egoki ikusten bada, deialdietan berdintasuneko irizpideak txertatzeko neurriak hartu.	2021	Berdintasuna Dagokion saila
	Kontratazioekin egindako lanketa bera hitzarmenekin egiteko aukera aztertu, eta, egoki ikusten bada, hitzarmenetan berdintasuneko irizpideak txertatzeko neurriak hartu.	2019-2023	Berdintasuna Dagokion saila
<b>G.O.7. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.</b>	Proba pilotu moduan Kiroldagiko araudi okorraren genero-eraginaren ebaluazioa (GEE) egiteko hasitako bideari jarraipena eman: egoeraren analisia egiteko Kiroldagikoek egin beharreko datu-bilketari segimendua egin, eta datuen genero-analisia egiteko egiaztapen-zerrenda testatu.	2019	Berdintasuna JFK





### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

1. GOBERNU ONA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
	Kiroldegiko araudi orokorraren GEE-k eman duena baloratu eta hurrengo urratsak zehaztu.	2019	Berdintasuna Idazkaritza
	Udal-araudien genero-eraginaren ebaluazioa egiteko adostutako materiala sailen eskuragarri jarri.	2019	Berdintasuna Idazkaritza
	Hernaniko udal-araudietan GEE egiteko jarraibideak zehaztu eta onartu.	2020	Berdintasuna Idazkaritza
	Araudiak egiten dituzten sailei trebakuntza eskaini genero-eraginaren ebaluazioaren nondik norakoen berri emateko.	2020	Berdintasuna Idazkaritza
	Araudiak egiten dituzten sail bakoitzari bere esku-hartze eremura egokitutako trebakuntza espezifikoa eskaini.	2020-2023	Berdintasuna Idazkaritza
	Udalean lantzen diren araudien GEE-ren txostena egin.	2020-2023	Dagokion saila
	Udal-sailek egindako GEE-ren txostenen egiaztatze-txostena egin.	2020-2023	Berdintasuna
	Udalean egiten diren GEE-ren txostenak sistematizatu.	2020-2023	Berdintasuna
<b>G.O.8. Udal-organo nahiz gainontzeko guneetan emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bermatzea.</b>	Udal-organoen (batzordeak, kontseiluak, Udal Gobernua...) osaera genero-ikuspegitik aztertu.	2021	Berdintasuna
	Azterketaren emaitza kontuan hartuta, eta, beharrezkoa bada, hobekuntza-neurriak hartu sexuen arteko ordezkartza orekatua	2021	Berdintasuna Alkatetza



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

1. GOBERNU ONA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
	eta berdintasun-gaietan aditua den norbaiten parte-hartzea bermatzeko.		Dagokion saila
	Udal-organo guztien araudietan berdintasunerako irizpide horiek bermatzea betebeharrak gisa jaso.	2021	Berdintasuna Alkatetza
	Udalak egiten dituen kanpo-agerraldietan (prentsurrekoak, omenaldiak, aitortzak...) nahiz eratzten dituen epaimahaietan sexuen arteko ordezkariak orekatua bermatzeko neurriak hartu.	2019-2023	Berdintasuna Alkatetza Dagokion saila
GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA SEKTORIALETAN			
<b>G.O.9. Hernaniko Udalaren lanpostuen balorazio-prozesuan genero-ikuspegia txertatzea.</b>	Lanpostuen balorazio-prozesua genero-ikuspegitik aztertu eta hobekuntzak proposatu.	2019-2020	Berdintasuna
<b>G.O.10. Udaleko langileen egoeraren inguruko diagnostikoa egitea genero-ikuspegitik.</b>	Hernaniko Udaleko langileen berdintasuneko diagnostikoa egin (segregazio bertikala eta horizontala, soldata-arrakala, etab.).	2019	Berdintasuna
	Azterketaren emaitzak Langileen Batzordearekin nahiz Pertsonaleko arduradunarekin partekatu.	2019-2020	Berdintasuna
	Azterketaren emaitzak aintzat hartuta, hurrengo urratsak zehaztu.	2019-2020	Berdintasuna
<b>G.O.11. Udaleko sailek bere jardueran genero-ikuspegia txertatzea.</b>	Lankidetzaren Arlotik egiten den esku-hartzean genero-ikuspegia txertatu.	2019-2023	Berdintasuna Lankidetzaren saila
	Kultura Sailarekin etengabeko harremana eduki, Kulturaren Plan Estrategikoan jasotako hainbat helburu eta ekintzetan genero-	2020-2023	Berdintasuna Kultura



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

1. GOBERNU ONA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
	ikuspegia nola txertatu elkarrekin pentsatzeko.		
	JFK Sailarekin etengabeko harremana eduki, egiten duten esku-hartzean genero-ikuspegia nola txertatu elkarrekin pentsatzeko.	2020-2023	Berdintasuna JFK
	Sailekin etengabeko harremana eduki, beren esku-hartzeetan genero-ikuspegia nola txertatu lantzeko, modu progresiboan.	2020-2023	Sail guztiak
KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA			
<b>G.O.12. Udal-barne mailan berdintasuneko lana partekatzea, koordinatzea eta lankidetzak eskaintzea; eta kanpo-mailan Udalaz gaindiko egiturekin harremanak sustatzea.</b>	<i>Berdinlanean</i> Batzorde Teknikoa bildu urteko lan-plangintza aurkeztu, kontrastatu eta adosteko. Beharrezkoa bada, berariazko lanketak egiteko urtean zehar ere bilerak egin.	2019-2023	Berdintasuna
	Genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko dagoeneko martxan dauden lantaldeen dinamikarekin jarraitu (KS lantaldea, Modernizazioarekin elkarlana...), eta, beharrezkoa bada, lantalde espezifikoak sortu lanketa konkretuak egiteko.	2019-2023	Berdintasuna
	<i>Berdinlanean</i> Buletina argitaratu, Udal-langile nahiz ordezkari politikoei egiten ari garen lanaren berri emateko. Gutxienez urtean behin.	2019-2023	Berdintasuna
	Berdintasunaren eremuan dauden eta parte hartzea erabaki den Udalaz gaindiko egituretan (Gipuzkoako Teknikarien Sarea, Gipuzkoako Jabetze Eskolen Sarea...) parte hartu.	2019-2023	Berdintasuna
<b>G.O.13. Berdintasun Kontseiluaren bidez</b>	Berdintasun Kontseiluaren orain arteko dinamikarekin jarraitu, hilean behin bilduz.	2019-2023	Berdintasuna



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

1. GOBERNU ONA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
herriko eragile feministekin eta mugimendu feministarekin elkarlanean politika feministak diseinatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.	Berdintasun Sailaren jarduera Kontseiluan hartzen diren erabakiak aintzat hartuta garatu.	2019-2023	Berdintasuna



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
<b>EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA</b>			
<b>E.A.1. Emakumeen genero-kontzientzia, autonomia eta autoestimua sustatzea.</b>	Jabetze Eskolaren programazioa adostu Berdintasun Kontseiluan, ikuspegi feminista aintzat hartzen dela bermatuta.	2019-2023	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua
	Orain arteko dinamikarekin jarraituz, Jabetze Eskolaren programazioari hasiera emateko Leokako emanaldia antolatu emakume sortzaileen lanak ikusarazteko.	2019-2023	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua
	Jabetze Eskolaren ikastaroak antolatu, urtean bi programazio eskainiz, eta horien kudeaketa- eta jarraipen-lanak egin.	2019-2023	Berdintasuna
	Jabetze Eskolako programazioak herriko emakumeen artean zabaltzeko bitartekoak sortu eta hedatu.	2019-2023	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua
	Gipuzkoako Jabetze Eskolen Sarean parte hartu, sistematizazio- eta ebaluazio-euskarriak partekatuz eta elkarlanean ekimenak antolatuz.	2019-2023	Berdintasuna
<b>EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA</b>			
<b>E.A.2. Emakumeek jendartean parte hartu dezaten sustatzea, eremu eta gune</b>	Kulturarteko Plaza Feministaren diseinu-prozesuan lantzeke geratu ziren alderdiak (kudeaketa-eredua...) landu, diseinu-prozesuan parte hartu duten eragileekin elkarlanean.	2019-2020	Berdintasuna Kulturartekotasuna Amher-SOS Arrazakeria



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
guztietan.			Eragile feministak
	Plaza Feministaran jarduera garatzeko beharrezkoa den aurrekontu-partida aurreikusi urtero.	2020-2023	Berdintasuna
	Amherren jardueran eta funtzionamenduan genero-ikuspegia txertatzeko prozesua sustatu.	2019-2020	Berdintasuna Kulturartekotasuna Amher-SOS Arrazakeria
	Kulturarteko Plaza Feminista kokatuko den eraikina egokitzeko obrak egin.	2019-2020	Hirigintza
	Kulturarteko Plaza Feminista martxan jartzeko aurreikusitako baliabide pertsonalak ezarri kontratazio zuzenaren bitartez.	2020	Pertsonala Berdintasuna
	Kulturarteko Plaza Feminista pixkanaka baliabide materialez hornitzen joan.	2020-2023	Berdintasuna Alkatetza
	Herriko emakume anitzen (adina, jatorria, klasea...) arteko sareak eta elkarlana sustatzeko bideak landu ikuspegi interseksionala aintzat hartuta eta emakumeen ahalduntze-prozesuak sustatzeko.	2019-2023	Berdintasuna Kulturartekotasuna Amher-SOS Arrazakeria Eragile feministak
	Beste herrialde batzuetako emakumeen ahalduntze-prozesuak sustatu eta emakumeen arteko hartu-emana bultzatu.	2019-2023	Berdintasuna Lankidetz Kooperazio Taldea



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
	Emakumeen ahalduntzea sustatzea heburu duten sentsibilizazio-ekimenak antolatu.	2019-2023	Berdintasuna Dagokion saila



## 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

3. EKONOMIA ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
<b>EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA ETA ZAINZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA</b>			
<b>E.G.E.1. Bizitzaren jasangarritasunerako zaintza-lanek duten balioa eta eragina aztertzea eta sozializatzea.</b>	Ekonomia feministari buruzko trebakuntza antolatzea Iturolarekin elkarlanean ariketa praktikoekin uztartuz, zaintza-lanek gizarte-eta ekonomia-egitura eusterakoan daukaten balioa ikusarazteko.	2019-2023	Iturola Berdintasuna
	Eskualdeko zaintza-baliabideen inguruko diagnostikoaren ondorioak kontuan hartuta, hobekuntza-neurriak landu.	2019-2023	Iturola Berdintasuna
<b>E.G.E.2. Zaintzaileen eta zaintza-zerbitzuetako erabiltzaileen bizi-baldintzak hobetzea.</b>	Zaintzaileen eta erabiltzaileen kooperatiba sortzeko urratsak ematea Iturolarekin elkarlanean.	2019-2023	Iturola Berdintasuna
	Udalak azpikontratatura dituen zaintza-lanpostuak municipalizatzeko aukerak aztertu, eta, bideragarria bada, lanpostu horiek publikatzeko neurriak landu.	2019-2023	Berdintasuna Alkatetza Zerbitzu Sozialak Iturola
<b>HEZKIDETZA, TRATU ONAK ETA SEXUALITATE ASKEA</b>			
<b>E.G.E.3. Hezkuntza formalean nahiz ez-formalean berdintasuna eta tratu onen kultura lantzea.</b>	Udalak antolatutako hezkidetza-programak garatu ikastetxe bakoitzaren beharrak aintzat hartuta, trebakuntza-saioak antolatuz, aholkularitza-zerbitzua emanez eta saretzea ahalbidetuz.	2019-2023	Berdintasuna
	Hezkidetzari buruzko sentsibilizazioa landu eskola-kiroleko, udaleku irekietako nahiz Gaztelekuko hezitzaileekin.	2019-2023	Berdintasuna Gazteria JFK





## 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

3. EKONOMIA ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
	Herriko eragile ezberdinekin tratu onen kultura landu.	2019-2023	Berdintasuna
<b>E.G.E.4. Herritarren sexualitate askea sustatzea.</b>	Sexu-aholkularitza zerbitzua eskaini, hernaniarrek sexualitate askea eta aurreiritzirik gabea izan dezaten.	2019-2023	Berdintasuna
<b>HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA</b>			
<b>E.G.E.5. Herritarrak feminismoaren inguruan sentsibilizatzea eta trebatzea.</b>	Herritarrak emakume eta gizonen berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko ekimenak antolatu urte osoan zehar (martxoak 8, azaroak 25...).	2019-2023	Berdintasuna Kordinadora Feminista Berdintasun Kontseilua
	Berdintasunaren kultura bultzatuko duten balio eta jarrerak sustatzeko sentsibilizazio-ekimenak egin urte osoan zehar.	2019-2023	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua
	Sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta herritarrei hausnarketa eragiteko ekimenak antolatu.	2019-2023	Berdintasuna
	Gizonezkoak feminismoan sentsibilizatzeko eta aldaketak eragiteko (erantzunkidetasuna, maskulinitate-eredu berriak...) ekimenak antolatu.	2019-2023	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua
<b>OROIMEN HISTORIKOAREN BERRESKURAPENA</b>			
<b>E.G.E.6. Emakumeen nahiz bestelako</b>	Emakumeek egindako lana ikusarazteko eta aitortzeko ikerketa-	2020-	Berdintasuna



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

3. EKONOMIA ETA GIZARTE-ANTOLAKETA ERALDATZEA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
<b>gorputz ez-normatiboen ikusgaitasuna eta aitortza lantzea, arlo ezberdinetan egindako ekarpenak ikusaraziz.</b>	bekaren deialdia egiteko aukera aztertu, eta, egoki ikusten bada, deialdia egin.	2023	Berdintasun Kontseilua
	Hernaniko LGBTIren historiaren inguruko ikerketa egin eta zabaldu.	2019-2020	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua
	Empar Pinedaren ekarpena ikusarazi eta aitortzeko ekimenak antolatu.	2019-2020	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua
	Espazio publikoan emakumeen presentzia sinbolikoa indartzeko irizpideak landu eta ekimen zehatzak bideratu.	2019-2023	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
<b>SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA</b>			
<b>I.M.1. Indarkeria matxistarik gabeko herria lortzeko herritarrak sentsibilizatzea.</b>	Jaien testuinguruan (San Joanak, txotx garaia...) herriko tabernariekin indarkeria matxistaren inguruko lanketa egin, erasoei erantzuteko neurriak adostuz (homofobia, lesbofobia, transfobia nahiz eraso arrazistak ere aintzat hartuta).	2019-2023	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua <i>Berriak</i> + herriko ostalariak
	Jaien testuinguruan, indarkeria matxistaren inguruko kanpaina espezifikoak antolatu, eta horretarako beharrezkoak diren euskarriak sortu edo daudenak berritu (informazio-gunea, larrialdietarako telefonoa...).	2019-2023	Berdintasuna Berdintasun Kontseilua Kultura
	Jaien testuinguruan, indarkeria matxistari aurre egiteko eragileen arteko elkarlana eta koordinazioa sustatu.	2019-2023	Berdintasuna Alkatetza Udaltzaingoa Eragile feministak
	Herriko eremu eta esparru zehatzetan indarkeria matxista prebenitzeko lanketa espezifikoak sustatu, eta, beharrezkoa bada, aholkularitza eskaini.	2019-2023	Berdintasuna Herriko eragileak Dagokion saila
	Indarkeria matxistaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko ekimenak egin (azaroak 25, <i>Beldur Barik...</i> ), zaugarritasun-egoera berezian dauden kolektiboek dauzkaten beharrak eta interesak ikusgarri eginez: adineko emakumeak, aniztasun	2019-2023	Berdintasuna



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
	funtzionala dutenak, etorkinak, etab..		
	Indarkeria matxista bizi duten emakumeei arreta eta laguntza emateko Hernaniko baliabideen eta zerbitzuen gidaren erabilerari jarraipena egin, beharrezkoa bada, euskarri gehiago jarritz edota erabilera handitzeko neurriak hartuz.	2019-2023	Berdintasuna Zerbitzu Sozialak
<b>DETEKZIOA, ARRETA ETA ERREPARAZIOA</b>			
<b>I.M.2. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea eta haien ahalduntze-prozesuetan laguntzea.</b>	Erakunde Arteko Koordinaziorako Mahai Teknikoa gutxienez urtean behin bildu, arreta-protokoloaren funtzionamendu egokia bermatzeko.	2019-2023	Berdintasuna
	Indarkeria matxista bizi duten emakumeen inguruko datuak biltzen dituen segimendurako tresnaren bidez eskuratutako datuetan oinarritutako txostenak egin urtero.	2019-2023	Berdintasuna Zerbitzu Sozialak
	Indarkeria matxista bizi duten emakumeen arreta-protokoloa ebaluatzeko egindako azterketaren emaitzak Erakunde Arteko Koordinaziorako Mahai Teknikoan aurkeztu, eta datuen inguruko gogoeta eta balorazioa egin.	2019	Berdintasuna Zerbitzu Sozialak
	Azterketaren emaitzak aintzat hartuta, balizko hobekuntza-neurriak hartu.	2020	Berdintasuna Zerbitzu Sozialak
	Komenigarria ikusten bada, arreta-protokoloa berriz ebaluatu eta emaitzak Erakunde Arteko Koordinaziorako Mahai Teknikoan	2022-2023	Berdintasuna Zerbitzu Sozialak



### 3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA			
HELBURUAK	NEURRIAK	EPEA	ARDURADUNA
	aurkeztu.		
	Kulturarteko Plaza Feministan indarkeria matxistarekin lotuta zer beste zerbitzu osagarri jar daitekeen aztertu, eta, komenigarria ikusten bada, zerbitzu gehiago martxan jarri.	2021-2023	Berdintasuna Zerbitzu Sozialak
	Indarkeria matxistaren inguruan etengabeko formazioa antolatu emakumeak artatzen dituzten profesionalekin, eta, bereziki, Udaltzaingoarekin.	2019-2023	Berdintasuna Udaltzaingoa